

PRESTAKUNTZA EKINTZAREN IZENDAPENA

- **FP EUSKADI EKINTZAILEA: EKINTZAILETZA KULTURA**

KODEA: UI18_10

- **IRAUPENA** : 30 ordu
- **IRAKAS LEKUA** : Tknika Zamalbide auzoa / Errearteria
- **HASIERA DATA** : 2018-07-02
- **AMAIERA DATA** : 2018-07-06
- **PLAZA KOPURUA** : GEHIENEZ 25 - GUTXIENEZ 10
- **HIZKUNTZA** : Gaztelania

EGITARAUA

KONPETENTZIAK

Prestakuntza jarduera honen bidez, gaur egungo Euskadiko LHk duen Ekintzailtza Kulturaren eredua landuko dugu.

Horretarako, Lanbide Heziketako irakasleekin Kultura Ekintzailea landuko dugu, horrela ikastetxeetan modu ekintzaile eta berritzailean jardun dezaten. Horrekin batera, Ikasenpresa proiektua aztertuko dugu; proiektu horretan, tresna metodologiko gisa erabiltzen da enpresak sortzea.

Beste alde batetik, ekimen sortzailea landuko dugu, ezagutzera emateko nola dinamizatzen den Urratsbat programa (LHko ikastetxeetan garatzen ari den enpresak sortzeko programa, hain zuzen ere), eta oinarri-zko zein fasez osatuta dagoen; enpresak martxan jartzeko programak dituen oinarri-zko tresnak eskainiko ditugu, eta talde lanaren garrantzia aztertuko dugu.

Horretarako, helburu orokor hauek planteatzen dira:

- Ekimen sortzailea LHko ikastetxeetan txertatze prozesua erraztea.
- Ikastetxe barruan lantzeko ekintzailtzaile buruzko oinarri-zko ezagutzak eskaintzea.
- Irakasleak jabeaztea zein garrantzitsua den ikasleek zeharkako gaitasunak lantzea, ondoren garapen profesionala garatzeko.
- Lantalde baten barruko rola zein izan litezkeen ezagutzea.
- Irakasleak gaitu negozio ideiak sortzeko.
- Irakasleak orientatzea negozio eredu baten hasierako diseinurako gidari gisa jardun dezaten.
- Eskuragarri jartzea merkatu ikerketa egiteko beharrezko tresnak.
- Negozio ideia baten Marketing Mix-eko estrategia garatzea.
- Urratsbat programa ezagutzera ematea, eta haren fase eta emaitzak aztertzea.
- Gai hauen gainean gogoeta egitea: batetik, lantaldea; bestetik, sarean lan egitea, tresna indartsua.
- Ekimenak egitea dinamizatzailearen rola definitzeko: zer elementu definitzen dute?
- Ikastetxean aplikatzeko moduko Sentsibilizazio Plan bat zein izan litekeen jakitea eta diseinatzea.

EDUKIAK

- Irakasletza ekintzailearen diseinua
 - Gaitasunak
 - Lan esparrua
 - Zeharkako kompetentziak
 - Lantaldearen rolak
 - Ikasapresa ereduaren negozio ideia garapena
 - Negozio ideia sortzea
 - Negozio eredia
 - Merkatu ikerketa
 - Marketing mix
 - Enpresak sortzeko eredia: Urratsbat
 - Taldean lan egitea eta sarean lan egitea
 - Sentsibilizazio plana
 - Tresnak
 - Diseinua
-

METODOLOGIA

1. eguna: 2018ko uztailaren 2a

- Harrera eta ikastaroaren aurkezpena
- Tknika-ren aurkezpena
- Euskadiko Lanbide Heziketako Plana
- Euskadiko LH ekintzailea
- Hezkuntza ekintzailea

2. eguna: 2018ko uztailaren 3a

- Irakasletza ekintzailearen diseinua
- Lan esparrua

3. eguna: 2018ko uztailaren 4a

- Negozio ideia
- Negozio eredia

4. eguna: 2018ko uztailaren 5a

- Merkatu ikerketa
- Marketing mix

5. eguna: 2018ko uztailaren 6a

- URRATSBAT programaren aurkezpena
 - Lantaldeak: Urratsbateko dinamizatzailen taldea
 - Dinamizatzaileren rola
 - Sentsibilizazioa ikastetxeetan: praktika onak eta dinamika
-

EBALUAZIOA

Ikaslea ebaluatzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Parte hartzaileek orduen % 90 (presentzialak edo/eta ez-presentzialak) bete behar dute, gutxienez.
 - Parte hartzaileek prestakuntza jarduerako dinamika, ariketa eta praktika guztiak egin behar dituzte.
-

BALDINTZAK

Ikastarora matrikulatzen den pertsonak honako irizpideetako bat bete beharko du:

- Lanbide Heziketako irakaslea izatea
 - Lanean, ikastaroan aurkezten diren edukien inguruan lan egiten duen persona izatea eta aurrez beharrezkoak diren oinarritzko ezagutzak izatea.
-

NORI ZUZENDUA:

- Izen-emateak, eskainitako plaza kopurua gainditzen badu, ikasle hautaketa izen-emate ordena jarraituz egingo da.

- Plaza kopurua honako proportzioak kontutan hartuz banatuko dira:

- Beste erkidegoetako LH irakasleak eta enpresako langileak: plazen %80.
- EAEko LHko irakaslegoa: plazen %20.

IZEN-EMATE DATAK

- Plaza kopurua: 25 (gutxienez 10 pertsona / gehienez 25 pertsona)
- Izena emateko azken eguna: 2018ko ekainaren 8a
- Ebazpena: 2018ko ekainaren 11. Izena eman duten guztiei adieraziko zaie, posta elektronikoaren bitartez, ikastaroan onartuak edo itxaron zerrendan geratu diren.
- Matrikula ordaintzeko azken eguna: 2018ko ekainaren 18a
- Beste erkidegoetako LH irakasleak eta enpresako langileak matrikularen kostua: 420€
- EAEko LHko irakaslegoa matrikularen kostua: DOAINIK